

Inauteriak iritsi dira Lasarte-Oriara

Udal Musika Eskolak hasiera eman die urteko egunik zoroenei

Ostegun gizona. Manuel Lekuona kultur etxeko areto nagusia pirataz, pailazoz, superheroiz eta gurasoz beteta zegoen.

Taula gainean, Udal Musika Eskolako txikiak *Intxaurrauskailuaren* musikaren erritmoan dantza egin eta *Paristik datoren* rap berezia abestu zuten.

Ostean, trikitixa, teklatu, gitarra, bibolin eta flautaren doinuak entzun ziren eta ezusteko ugari egon zen.

Larunbatean desfile eta diskofesta

Larunbata arratsaldean, 18:00etatik aurrera, konpartsen eta zinema izarren desfilea antolatuta da herrian.

Iñigo de Loiola kaletik aterata. Emakumeen Zentro Zibikoa, Erketz Dantza Taldea, Zabaleta Auzolan Elkartea, Ttaku Kultur Elkartea, Zakilixut, Jalgune, Udal Musika Eskola eta Oriako txaranga erdialdeko kaleetan zehar ibiliko dira. Bi geldialdi egingo dituzte, bata

Andatza plazan eta bestea, Udaletxe parean eta bertan Erketz eta Zentro Zibikoko kideek bere dantzan eskainiko dituzte.

Kiroldegi ondoko frontoi berrian amaituko da desfilea, bertan emanaldi ezberdinak izango dira. Hasteko Emakumeen Zentro Zibikoko eta Erketz Dantza Taldeko kideen dantzak ikusiko dira.

Jarraian, desfilean parte hartu duten talde ezberdinek prestatutako emanaldiak ikusiko dira.

Festarekin jarraitzeko, Lasarte-Oriako Udalak 23:00etan disko-festa antolatuta du Andatza plazan.

Euskal Inauteriak

Biharamunean, berriz, Euskal Inauterietako jantziak eta dantzak ikusteko aukera egongo da goiz eta arratsaldean.

Hau izango dira Inauteriei agurra egingo dion taldea, Ilargi taberna parean, hartza eta Miel Otxin erreaz. •



Txokoetako gaztetxoek rap berezia eskaini zuten. Taula gainean mozorroez gain, munstro eta ezusteko ugari egon ziren.



Ezker Abertzaleak Teresategiko proiektua isilean aurrera doala salatu du /3

KIROLA /6

Lasarte-Oriako atleten emaitza paregabeak Gipuzkoako txapelketan



Relato breve de Lasarte-Oriari buruz Jose Luis Navarrokina solasean /4

ZERBITZU TEKNIKO INFORMATIKOA



Interneta, software, hardware, hastapeneko eskolak
Edozein PC konpontzen dugu
Ekipoa etxean jasotzea eta etxera eramatea
erantsitako gasturik gabe. Konpromisorik gabeko aurrekontua

657710021 / 943371702 (Raul)
raulvisa@yahoo.es

OTEGI

Txotx garaia hasita!

SAGARDOTEGIA
SOLLAENEA BASERRIA

- Larunbata eta jai eguerditan irekita
- Asteartetik larunbatera gauero irekita

Zabaleta auzoa • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 365029



Udal agintariak industrialde politikarik gabe ari direla salatu dute ezker abertzaleko zinegotziek.

‘Ezkutuan’doa aurrera Teresategiko industrialdea

Arau subsidiarioen aldaketa eta Rekaldetik egingo den bidearen berri eman du Ezker Abertzaleak

Teresategiko industrialde proiektua aurrera doala eta Udal Gobernuak ez duela informaziorik ematen salatu dute Ezker Abertzaleko hiru zinegotziek. Gehiengoa daukatenez, laster, euren ustez udaberriari, Gobernu Batzordeetik eta Udal Batzarretik pasatu eta martxan jarriko dute proiektua, "astakeria" euren hitzetan, batera eztabaidarik gabe.

2009ko martxoa amaieran auzotarrei eta oro har herritarrei bideragarritasun azterketa berri bati buruzko informazioa eman zioten Ezker Abertzaleko zinegotziek. Orain, Joxe Goikoetxea, Itziar Iartza eta Txanpi Baztarrikak beste informea baten berri eman dute, berriro ere lanean ari diren seinale: arau subsidiarioen aldaketa bat. Eta ez dute ezagutu Udal Gobernuak proiektuaren informazioa ematen duelako, kontrako baizik, kanpotik iritsi zaie informazioa: "lehen bezala ezkutuan eta herriari zein zinegotzietan informaziorik eman gabe segitzen dute". Martxoan publiko egin zuten informazioaren berri, azaroko hirigintza batzordean eman zien Ana Urchueguia alkateak, "ordura

arte ezer pasa ez balitz bezala jokatu zuten".

Aldaketak

Teresategiko industrialde proiektuaren aldaketa nagusia, "nabarmen nabarmena", sarbide berri bat izango da, hau da, Errekaldeko errotunda berritik errepide bat irekiko da, hain juxtu karrozeria dagoen ingururitik gora, saihezbide berriko bide-zubiaren azpitik. Goian beste biribilgune bat izango da Pepenea baserriaren ondoan. Saihezbide berria industrialdearen ondo ondotik pasako da baina ez du sarrera edo irteerarik izango. Industrialdeak beraz hiru sarrera izango ditu, bata Goiegi ingurutik, bestea Galarrreta edo Hernani aldetik eta hirugarrena Rekaldetik.

Udal Gobernuak industrialde proiektuari buruz ezer esaten ez baldin badu ere, aurrera doala jakinarazi zuten hiru zinegotziek, Udal agintarien jarrera eta informazio falta salatuz: "Informazioa dena prest dagoenean emango digute, bitartean isilik egongo dira", Proiektu berriaren planoak kanpotik lortu dituztela jakinarazi zuten "inori ez digute

informaziorik ematen eta herriari gutxiago".

Bestalde, Udal Gobernuak Industrialde arloko Politikarik ez duela salatu zuten eta beraz definitu dezatela eskatzen die herriko agintariei. Ezker abertzaleko kideen ustez beharrezkoa litzateke eskualdeko industrialdea, kontutan izanik Lasarte-Oriako ez duela lurrik industrialderik kokatzeko.

Eskualdeko industrialdea

Gaiari buruz gazdetzekoak ziren Somotoko ikerketa aztertu zen batzarrean, baina alkateak eten egin zuenez ez zuten aukerarik izan. "Argi daukagu Lasarte-Oriaren ezaugarriak ikusita industrialde txukun bat egiteko aukera gutxi daudela, eta egiten bada astakeria bat eginda Teresategin bezala" salatu zuen Joxe Goikoetxeak.

Zinegotziek gogor salatu dute Agenda 21 ekimena edota hirigintzan auzo elkarrekin sortu zen batzordea, legeak behartzen dituelako sortzen direla baina ez benetan interesa dutelako honelako gaiak eztabaidatzeko, iritziak jasotzeko edo informazioa herriari zabaltzeko. •

OMENALDIA

Terrorismoaren biktimen oroimenezko ekitaldia astelehenean

Lasarte-Oriako Udalak aitorten instituzionala egingo die astelehenean terrorismoaren biktimei. Alkatetzatik adierazi dutenez "plaka honen bitartez, biktimen adorea eta zorigaitzaren aurrean izan duten duintasuna aditzera eman nahi da".

Eguerdiko 12:00etan Udaletxean egingo den ekitaldian, musikak, hitzak eta oroigarriak izango dute leku, baita bi plaken estalgabezak ere.

Udal korporazioko kideekin batera ekitaldian izango dira, besteak beste, Barne-Arazoetako Ministerioako Terrorismoaren Biktimen Laguntzarako Zuzendari Orokorra, Jose Manuel Rodriguez; Gobernu Delegatua Euskadin, Miguel Angel Cabieces; Eusko Jaurlaritzako Barne Sailburua, Rodolfo Ares; Terrorismoaren Biktimen Aldeko Bulegoko Zuzendaria, Maixabel Lasa edo Gipuzkoako Batzar Orokorretako Presidentea, Rafaela Romero. •

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

20 urteko gizon bat atxilotu dute bere neskalaguna erasotzeagatik

Ertzaintzak asteazken egunsentian 20 urteko gazte bat atxilotu zuen Lasarte-Oriako bere neska laguna erasotzeagatik eta laban batekin mehatxatzeagatik. Biktimaren arabera, erasoia eztabaida baten ondorioz etorri zen.

Emakumeak etxetik ihes egitea lortu eta bizilagun batzuen laguntza izan zuen. Erasoa eragindako zauriak osasun zentro batean sendatu zizkieten. Emakumeen kontrako indarkeri-erasoa egotzita atxilotu zuten gizona.

Lasarte-Oriako alkatetzak eraso gaitzetsi du, gizon eta emakumeen hartuemanetan indarkeria desagertzeko konpromezua berretsiz, eta bere eskura dituen beharrezko instrumentu guztiak martxan jarriko dituela aipatuz. Halaber, lasarteoriatarrei, emakumeen indarkeriaren kontra agertzeko deia luzatu die, indarkeria gaitzetsi, lekurik ez eman eta isiltasuna apurtuz.

SARIA

Igandean jasoko du Antonio Mercero Ohorezko Goya

Antonio Mercero lasarteoriatarren ibilbide artistikoaren garrantzia ukatuko duenik ez dago. Estatuko Arte eta Zientzia Zinematografikoaren akademiak ere Lasarte-Oriako zuzendariaren lana aintzat hartu, eta aurtengo Goya sariaren edizioan, Ohorezko Goya emango diote.

73 urteko zuzendari eta ekoizleak eremu ezberdinetan lortu du onespina. 50 urte bete dira lasarteoriatarra zinema munduan murgildu zenetik, eta bere lanbidean urrezko etzeiak ospatzeko, zer hobe, Ohorezko Goya jasotzea eta aitorten hori baino.

Igandean, gaueko 22:00etan hasiko den gala, TVEko lehenengo kateak zuzenean eskainiko du. Amaitzean, Antonio Mercero zuzendutako "Planta 4th" filma emango dute. •

MAHAINGURUA

PSE-EEko egoitzan Aresekin solasaldia

Eusko Jaurlaritzako Barne sailburu Rodolfo Aresek Lasarte-Oria bisitatuko du gaur. Ekimena aldiro eta herri ezberdinetan PSE-EE alderdiak antolatzen dituen mahainguruen baitan koka dezakegu. Oraingoan, Lasarte-Oriaren txanda izango da.

Arratsaldeko 19:00etan, PSE-EE alderdi politikokoak Ganbo 1 kalean duen egoitzan herritarrekin bildu eta mahaingurua egingo du. Horregatik, alderdiko kide eta herritarrei parte hartzeko deia luzatu nahi die. Mahainguru honetan ez dago gaia zehazturik, gai ezberdinak eta oso bestelakoak jorratuko dira, bertaratzen diren galderen arabera. •

UDALA

Obrak eta Hirigintza saila itxia publikoari

Udaletzeko Obrak eta Hirigintza sailaren bulegoak Ganbo Kaleko 1. zenbakian dagoen Udal Euskaltegi zaharrera tokialdatzekoak direla eta, herritarrei aditzera ematen zaie zerbitzua publikoarentzat itxia egingo dela 2010eko otsailaren 12tik otsailaren 20ra, bi egunok barne. Otsailaren 22an hasiko dira egoitza berrian jendearen aurrean lanean.

Premiazkoak eta urgenteak diren kontsultak 943 376 189 telefono zenbakian egin daitezke, edota posta elektronikoaren bidez mezua hirigintza@lasarte-oria.org helbidera bidalita. •

Teresategiko muinoa, industrialdeak inguraturik

Jada 2009ko martxoaren amaieran salatu zuen ezker abertzaleak 106 milioi eurotik gora erabiliko direla eta 850.000 metro kubiko lur baino gehiago mugituko direla Teresategiko industrialgunea egiteko. Ana Urchueguia alkateari nekazal guneetan proiekturik bazen galdetu zioten orduan zinegotziek eta arau orokorrak ez direla alda-

tuko, nekazal lurak ez direla ukituko, erantzun zuen. Orain jakin eta salatu dute arau subsidiarioetan aldaketak egingo direla. Zinegotziek euren kezka berritu dute, izan ere proiektua gauzatzeko baldin bada, eta horren duarik ez dute, Lasarte-Oriako nekazal edo mendi lur guztiak desagertuko dira.

Duela urte batzuk, herrian

erantzuna izan zuen eta atzera bota zen lehen proiektuak Teresategiko gaina kendu eta espazio guztia industria eremurako erabiltzea proposatzen zuen. Oraingoan, muinoa mantendu egingo da baina industrialdeak inguratu egingo du.

Ezker abertzalearen ustez herriak muga jo du, zementuz gainezka da, errepide, etxebizitza eta poligonoz beteta. •

Jose Luis Navarro / *Relato breve de Lasarte* liburuen egilea

“Liburua ez da nobela bat, motzagoa da, lehengo ohituren kontakizuna”

Jose Luis Navarrok *Relato breve de Lasarte-Oria* liburua gaur arratsaldeko 19:00etan aurkeztuko da Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan. Aurkezpenari aurreratuz, egilearekin solasaldia izan dugu liburuen berri gehiago jakiteko.

Nerea EIZAGIRRE

Lasarte-Oriako historiari buruzko bigarren liburua du Jose Luis Navarrok. Aurrekoan, *Retazos de la vida de Lasarte y Oria del siglo XX a través de la prensa* liburuan herriari buruz egunkarietan argitaratutakoa aurkeztu zigun; oraingoan, berriz, *Relato breve de Lasarte-Oria* liburuan, horietako gertaera batzuk aukeratu eta Lasarte-Oriako familia batek bizitako kontakizunak digu.

Nola sortu zen liburua egiteko ideia?

Bat batean datorren ideietako bat izan zen, baita erronka ere: Gai izango ote nintzake *Retazos* liburuko albiste batzuk lotzen eta istorio baten itxura ematen?

Zergatik da liburua *Relato breve de Lasarte-Oria*?

Hau gauza motza da eta irakurtzeko erraza. Ez da eleberririk, ohituren kontakizuna da. Garaiko ohiturak islatzen ditut, gertakizun batzuetan oinarrituta.

Zein garaitan kokatzen da liburua?

1920. hamarkadatik 1930. hamarkadara, gutxi gorabehera, Donostian Belle Epoque garaia da eta kanpoko jende asko dago. Erregeak datoz, Gobernu eta Lehenengo Mundu gerratik ihesi datorren jendea. Horren ondorioz,

inguruko herrietan ekimenak egiten hasten dira eta, batez ere, Lasarten: 1914ean golf sortu zen, 1916ean Hipodromoa, 1917 edo 1918an lehenengo hegazkinak aerodromoan eta 1923an automobil zirkuitua.

Horiek guztiek izan ziren Lasarte eraldatu zituzten gertaerak eta horiek dira erabiltzen ditudan gaietako batzuk.

Nola lotzen dituzu gertaera desberdinak?

Horretarako, familia bat sortu dut, nik imajinatutakoa.

Gizona fabrika batean ari da lanean, baina golf zelaira lanera joateko aukera ematen diote eta lana aldatzen du.

Emakumea oriatarra da eta Brunet familiarekin harremana duena. Ospakizunetan zerbitzari lanak egiteko deitzen zioten.

Seme-alabak hezi eta bere bizitza propioa dute...

Nolako Lasarte-Oria aurkeztu digu liburua?

Lasarten landa giroa zegoen. Ez zegoen ia industriarik, tailer txiki batzuk zeuden eta industria handia Oria zegoen, Brunet fabrika.

Jendea nekazaritaz bizi zen eta gertakizun horiek guztiek aldatu zuten.

Langileak, esku-lana, behar zen, Hipodromoa eraiki eta bertako lanak zirela eta, edota golfean ere antzera: gazte asko kadi lanetan hasi eta profesio-

nal onak bihurtu ziren. Ikasketak bukatzen zituzten gazteentzat, pagotxa izan zen.

Eta urte batzuk geroago, Michelin fabrika agertzen, herria guztiz eraldatu zen.

Laguntzarik izan al duzu?

Laguntzarik handiena Juan Garmendia Cortadi, *Zeleta*, lasartearraren *Aurtzaroko oroipenak* liburuxka izan da. Hark bizi izan zuen garai hori eta bere begietatik jakin ahal dugu nolakoa zen gure herria.

Horretaz gain, Ramon Lopez, historialariak eta nire lagunak emandako bi batzar-agiri ere erabili ditut. Horieta batean, Lasarte, arazo batzuk medio, Hernanitik banantzeko ahaleginetan zebilela diote eta ideia hori ere erabili dut.

Beraz, 1920. urtean Lasarte-ko herritarrek herri independente izateko ideia zuten?

Herriko jauntxo, alkate eta zinegotzien ideia zen, orduan, baina ez zuten lortu.

Hernanirekin arazo bat egon zen. Dirudienez, Hipodromoan epidemia bat sortu zen eta gaixoak Hernaniko ospitalera eraman behar zituzten. Baina hernaniarrak ez zetozen bat.

Egoera hori ongi datorrit, gertaera jakitera emateko, herritarren kezka erakutsi eta independentzia ideia hori XX. mendeko garai desberdinetan zehar mantendu zela esateko.

Zaila izan al da liburu berria idaztea?

Ni ez naiz profesionala eta nire burua ez da kutxa ireki bat. Liburua ilusioz hasi nuen eta denbora batez utzi behar izan nuen.

Zeintzuk dira Lasarte-Oriari buruzko bi liburuen arteko desberdintasunak?

Retazos liburua ikerketa lana izan zen, ia urte eta erdi egin nuen Koldo Mitxelenara egunero joaten eta gero horri forma eman behar izan nion.

Hau, ordea, imajinazio lana izan da. Ordenagailuaren aurrean eseri eta gertaera zehatz batzuk lotzeko gauzak irudikatu behar izan ditut.


Bitxikeriarik bizi izan al duzu?

Behin Koldo Mitxelenan nintzela, *Retazos*en dagoen hilketa batekin lotura zuen epaiketa aurkitu nuen.

Hiltzaileari heriotza zigorra ezarri zioten garrotearekin, baina duda geratu zitzaidan, agian gero biziarteko kartzela-zigorren artean aldatu ote zioten edo. Epaietara joan eta aho zabalik geratu ziren nire eskakizuna entzun zutenean.

Azkenean ezin izan nuen jakin, paper horiek ez baitira gordetzen. •






- 10 ordu: astelehenetik ostegunera
- Txandaka ibiltzeko aukera (maila guztietan goiz zein arratsaldez)

Matrikulaldia: otsailaren 19 arte
Bulego orduak: 08:30 – 19:15

- Hasierako mailan ez dago apuntatzerik (irailean baino ez dugu onartzen)
- Autoikaskuntzan plaza guztiak beteta.

Egoitza berrian, kiroldegiaren ondoan!



Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia
Tel.: 943 36 16 21
www.lasarte-oria.org/eu/html/25/1147.shtml

Bikoteen harremanak sendotzeko tailerra

Hezi gaitzen hezi ahal izateko tailerra antolatu dute Danok Kidek eta Andatzazpi unitate pastolarak ■ Hamabi saio izango dira urte osoan banatuak

Heleduentzako hezkuntza, Musika Topaketa, Zinema Sozialeko zikloa eta, orain, gurasoei zuzendutako Hezi gaitzen hezi ahal izateko tailerra antolatu du Danok Kide guraso elkarteak, Andatzazpi unitate pastoralaren laguntzaz. Tailerra zuzenduko duen pertsona, Secundino Gonzalez Orive pedagogo eta sexologia izango da.

Antolatzaileek azaldu digutenez, "urteko ekimen artean, gure elkarte gurasoei zuzendutako dagoenez, gurasoentzat tailerra egitea otu zitzaigun. Xabier Andonegiren hitz egin genuen, hark katekesiaren bidez gurasoekin hartu eman gehiago duelako. Berak bere laguntza eskaini zigun."

Honetaz gain, "tailerra zuzentzen duen pertsona Secun, Xabierrin laguna da eta Danok Kideko hezkuntza ekimenetan ere irakasle da. Esperientzia handiko pertsona da. Gazteen irakaslea izan da eta gazte eta gurasoekin asko lan egin du. Bikoteekin ere, ezkontza aurreko kursoak, etab eman ditu. Hari esan eta hark horrelako zerbait antolatzea zuela aipatu zigun," gaineratu dute.

Tailerra hilabeteetan behin eskainiko da, hilabeteko hirugarren ostegunean arratsaldeko 19:00etatik 20:30era eta hamabi sesio izango dira. Otsailaren 18an hasi eta 2011. urteko maiatzaren bukatuko da, udan, ekainetik urrirako atsedenaldua eginez.

Hala ere, ez dute lekua zehaztua. "Izena ematen duten jende kopuruaren arabera, Danok Kideren egoitza, Blas de Lezo kaleko 11-13 zenbakietan edo San Pedro parrokiako lokaletan egingo da tailerra," esan digute eta "tailerra aurrera ateratzeko gutxienez 15 pertsona egon beharko

lirateke," azpimarratu dute.

Nori zuzendua

8 urte eta 13 urte arteko gazteak dituzten gurasoentzat zuzendutako tailerra dela azaldu digute. Izan ere, "bikoteak urte batzuk daramatzate elkarbizitzen eta eztabaidak izaten dituzte. Era berean semeekin gatazkak izaten dituzte eta hauek hezteko arazoak."

Horregatik, tailerren helburua, harremanak lantzea da. "Familia eraldatzen doan kontzeptua da, baina honetan lotura mantendu edo sendotzeko kideen arteko harremana garrantzitsua da. Bikotea, familia eta lana, oreka mantendu behar, eta horretarako pertsonak dituzten jarrerak landu eta aztertuko dira tailerlean," aipatu digute.

Tailerra

Sentimenduak, intimitatea, jarrera positiboa, sexualitatea,... Horiek dira tailerrak uztartuko dituen gaiak.

Hala ere, lehenengo bi saioetan, sarrera moduan,



Secundino Gonzalez Danok Kide elkartearen irakasle lanetan dabil eta hainbat hitzaldi ere eskaini ditu herrian.

harremanetan sortzen diren loturak, bikotearen artean edo guraso eta haurren artean, aztertuko dira. Izan ere, bizitza kalitatea, harremanen kalitatea oinarritzen da eta jarreraren

azterketaren eta hauen garapeneren bidez pertsona hezi eta honek hobeto hezi dezake.

Gainontzeko, saioetan jarrera bakarra uztartuko da, baina "sentimenduak azter-

tzean gaia bi egunetan banatuko da, batetik sentimenduetik jarrera eta bestetik autoestimua," aurreratu dute.

Antolatzaileek azaldu digutenez, tailerra ez da teoria izango. "Taldeen lan egingo da; jendeak bere esperientziak azaldu beharko ditu; Secunek apunteak emango ditu, baina esperientziak ere azalduko ditu. Beraz, tailerra aktiboa eta entretengarria izango da," aipatu dute.

Izena ematea doan

Honela, esan bezala, 8 urte eta 13 urte arteko gaztetxoak badi- tuzue edo bikote harremanak sendotu nahi baldin badituzue 943 371 616 telefono zenbakira deitu, Danok Kide elkartera edo parrokiako lokaletara hurbildu.

Gainera, nahiz eta epea otsailaren 16an bukatu, tailerra martxoan hastera posible dela aipatu digute Danok Kideko antolatzaileek. ●

Zinema sozialeko zikloak hasiera musikala izan du

Musika eta Gizarte. Hori izan zen astelehenean Danok Kidek antolatutako Zinema Sozialaren zikloaren seigarren edizioari hasiera eman zion gaia.

Copying Beethoven filmea ikusi eta bere soinubandaz gozatu ostean, Gipuzkoako Ateneoko lehendakariak Angel Garcia Rondak musikaren garapenaz, egileen garrantziaz eta hauek sortzean duten sentipenez, besteak beste, hitz egin zuen. ●



Gipuzkoako Ateneoko lehendakaria Angel Garcia Ronda izan zen hizlaria.

M. Berasategi Kafeak



**Beñi dago aukera
kafe on bat hartzeko**



INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erh)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a....

TEINA GABEAK

- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a...

KAFE ARABIKOAK

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA



Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316
LASARTE-ORIA

Kiroletako agenda

■ FUTBOLA ■

Larunbata 13

10:00etan, Ostadar-Orioko (Infantilen Ohorezko maila, kopa) Michelinen.
11:30etan, Ostadar-San Patricio (I. Jubenila, kopa) Michelinen.
13:15etan, Ostadar-Leintz Eskola (Partehartzte infantilak, kopa) Michelinen.
16:00etan, Ostadar-Lagun Onak (I. Kadetea, igoera fasea) Michelinen.
17:30etan, Ostadar-Zumaiko (Jubenilen Ohorezko maila, igoera fasea) Michelinen.

10:00etan, Lengokoak B-Ostadar B (Infantil Txikiak, txapeladunen fasea) Cesar Benito, Donostian.

Igandea 14

10:00etan, Añorga-Ostadar (Alebinak) Michelinen.

■ ARETO-FUTBOLA ■

Larunbata 13

15:00etan, Azpeitiko-ISU Leihoak (Gipuzkoako Liga, I. maila) Azpeitiko kiroldegia, Azpeitian.

HERRIKO TXAPELKETA

Michelingo areto-futboleko gunean

Ostirala 12

20:30etan, Obelix-Morrison

Larunbata 13

10:15etan, Epel-Ainhoa
11:15etan, Izkiñā-Okela
12:15etan, Viñā del Mar-Ilargi
13:15etan, Izarra-Naiban
15:00etan, Goiz Argi-Buene-txea
16:00etan, IOB H.K.-Biyona
17:00etan, Oria kris.-Siglo XX
18:00etan, Tragoxka-Mingallon

■ JUDOĀ ■

Igandea 14

14:30etan, LOKEko Iñaki Elizalde, Beñat Eleizegi, Asier Sagasti, Mario Garrido eta Leire Zubizarreta judokak Euskadiko 23 urte azpiko txapelketan parte hartuko dute Galtzarabardako kiroldegian, Errenterian.

■ IGERIKETA ■

Larunbata 13

16:00etan, Buruntzaldea Igeriketa taldeko gazteak Kutxako Gaztetxoen Elkarteko X. Igeriketa sarian parte hartuko dute, Ordizian.
16:15etan, Buruntzaldea Igeriketa taldeko gazteak Kutxako Gaztetxoen Elkarteko X. Igeriketa saria parte hartuko dute Zarautzen.

■ PILOTA ■

Larunbata 13

16:00etan, Intza 2-Hernani (Eskuz binaka, alebinak 2. Urtea) Michelinen.

16:00etan, Intza I-Oiarpe I (Eskuz binaka, alebinak 2. Urtea) Antzuolan.

16:00etan, Intza 2-Hondarribiako (Eskuz binaka, infantilak) Jostaldi, Hondarribin.

16:00etan, Intza I-Oiarpe 3 (Eskuz binaka, infantilak) Zestoan.

18:30etan, Bergara-Intza (Eskuz binaka II. Seniorra) Antzuolan.

■ BOLA-JOKOĀ ■

Igandea 14

Egun osoan, Ostadarreko bola joko taldeak Gipuzkoako Bikotekako txapelketan parte hartuko du, Urnietan.

latu du. Saikapeneko 6 postuak asmatzen dituzten artean, Jalai tabernan bi pertsonentzako afora eta Zigako landa-etxean 2 pertsonentzako astruburu pasa zozketatuko dira.
 4. jardunaldiara arte, hau da, martxoaren 13ra arte dago porra egitea.
 Aldatzekua, Txema taberna, Gure etxea, Insausti, Ilargi, Jalgi, Txanpa, Xirimiri eta Udaberri tabernatan porrako txartelak eskuragarri daude.
 Anima zaitzete!

Kiroletako oharrak

Pala Txapelketan izena emateko epea gaur bukatzen da

Ostadar K.Fak XVI. Gomazko pilotako Pala txapelketako izena emateko azken eguna gaur da. Bikoteek txapelketako oinarriak eskuratzeko Ostadarreko bulegora, Geltoki kalea 25 zenbakira hurbildu edo 943 360 433 telefonora deitu behar dute.

6 Nazioak rugbyko porra
 Beltzak Errugby taldeak 6 Nazioak lehiaketako porra anto-

Latorre atleta Gipuzkoako txapeldun

200 metrotako lasterketan garaipena eskuratu zuen eta hirugarren postua, 60 metrotako lasterketan



Leire Amiano kadetea Espainiako txapelketan lehiatu zen pertikako proban.

Lehenengo asteburuan, Anoeta-ko belodromoan Gipuzkoako txapelketa jokatu zen eta LOKEko atletez gain, Real Sociedad taldeko Iñigo Sevillano eta Scania-Pamplona taldeko Jose Ramon Latorre herritarrek ere parte hartu zuten, baita emaitza paregabeak eskuratu ere.

Jose Ramon Latorrek urrezko domina eta brontzezkoa ekarri zituen herrira.

Latorre dugu 200 metrotako lasterketako Gipuzkoako txapeldun berria. Saikapeneko lasterketan erraz irabazi zuen 45 segundo-milareneko errentarekin eta finalean, 22,56 segundo markarekin garaipena eskuratu zuen.

Era berean, 60 metroetako lasterketan hirugarren postua eskuratu zuen 7,08 segundo-ko denborarekin.

Iñigo Sevillano atleta gazteak, berriz, zilarrezko domina eskuratu zuen 60 metro hesiekin proban.

LOKEko atletak

Herriko ordezkaritza LOKEko atletekin osatu zen. Bere proba bako finalean parte hartu zuten ia guztiak eta emaitza onak lortu zituzten haien mailan lehiatzen ez zirela kontuan izanik.

Gaizka Ormazabal jubeni-la, Latorreraren antzera, 200 metrotako eta 60 metrotako finalean lehiatu zen. Baina emaitzak bestelakoak izan ziren, 200 metrotako proban seigarren izan zen eta 60 metroetan 8. postuan amaitu zuen lasterketa.

Irati Larrañaga ere bi probatan aritu zen, luzera jautzian eta jauzi hirukoitzean, eta bietan 4. postua eskuratu zuen.

Unai Imazek, berriz, 800 metrotako proba egin zuen

eta bosgarren gipuzkoarra izan zen helmugan.

Eta azkenik, Eneritz Imaz, 60 metrotako finalerako sailkatu zen, zortzigarren denbora eginez baina ez zen finalera aurkeztu sailkatua ez zegoela pentsatzen zuelako.

Espainiako txapelketa

Era berean, LOKEko Leire Amianok kadete mailako Espainiako txapelketan parte hartu zuen Oviedon. Atleta gazteak 11. postua eskuratu zuen pertikako proban. •

Gimnastikako neskek lehiatzen hasi dira

Bost hilabeteko entrenamenduen ostean, LOKEko gimnastikako neskei lehiaketako garaia iritsi zaie.

Lehenengo asteburuan, Arrasaten, kadete eta amateur mailako banakako txapelketaren lehen sailkapen saioa izan zen eta Maite Ruedaren lau neskentzat, Aizpea Arroyo, Ane Ayestaran, Miren Aizpiri eta Garazi Gomezentzat urteko lehen txapelketa izan zen.

Aizpea eta Ane kadeteek uztaiarekin lan egin zuten. Miren eta Garazi jubentilak borrekin egin zuten saioa.

Entrenatzaileak azaldu digunez, "zaila ikusten dugu neskek finalera iristea. Araudi aldatketa egon da aurten eta hurrengo jardunaldia, gainera, aurten ikasi duten tresnarekin egin behar dute, kadeteek borrekin eta jubentilek zintarekin."

Hala ere, "Aizpeak dauzka



LOKEko taldeak martxoak 7an Udaberriko Torneon izango dira Astigarragan.

aukera gehien jardunaldi honetan 4. postua eskuratu duelako," aipatu du.

Bigarren fasea, apirilaren 17an jokatuko da eta orduan, LOKEko gimnastak zortzi lehenen artean geratzen badira, maiatzaren 8an Tolosako finalean lehiatuko dira.

Udaberriko Torneo

Bestalde, taldeek martxoaren

7an hasiko dute lehiaketa, Astigarragan, Udaberriko Torneo.

Bi talde alebinek saioa 3 pilotatuta eta 2 esku hutsik egingo dute eta infantilek 5 uztaiakin.

"Bigarren fasea, berriz, maiatzak 22an jokatuko dute tresna berdinekin. Irabazlea bi jardunaldien emaitzak gehituz erabakiko da", azaldu digu entrenatzaileak. •

Egunero

Erakusketa

INAUTERIAK direla eta, Tim Burtonen filmografiako irudiek in apainduko da Jalgi gaurtik aurrera.

Ostirala, 12

Liburu aurkezpena

Jose Luis Navaroren RELATO BREVE DE LASARTE liburuaren aurkezpena. Kulturetxean, 19:00etan.

Larunbata, 13

Inauterietako desfilea

DESFILE erraldoi eta bateratu aterako da I. Loiola kaletik arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Bertan herriko hainbat talde eta elkarten konpartsak ikusi ahal izango dira.

Astelehena, 15

Zine soziala

BALZAC Y LA JOVEN COSTURERA CHINA filma eskainiko dute Danok Kideek antolatutako VI. Zinema Sozialaren Zikloaren barruan. Ondoren Literatura eta Gizarteari buruz arituko dira. Hizlaria M^a Carmen Perez. Kulturetxean, 17:30ean.

Asteazkena, 17

Hitzaldia

JATEKO OHITURA DESEGOKIEN ONDORIOEI BURUZ hitz egingo du Arantza Lorentzo dietistak: diabetesa, gizentasuna, koleste-



Lasarte Auto-Zirkuituari buruzko argazki erakusketa

Gaur inauguratuko da erakusketa eta ikusgai izango da otsailaren 26ra arte. Bertan, Kutxa Fototekako Fondoak antolatuta, Lasarteko Auto-Zirkuituari eta bertan egindako lasterketei buruzko argazkiak egongo dira ikusgai. Erakusketa hau osatzen duten 85 argazkiek Donostiak, Gipuzkoak eta Euskadik izandako garrantzi turistikoaren irudi ahaztezin bat eskaintzen digute.

KULTURETXEAN, 26RA ARTE
18:00ETATIK 21:00ETARA

rol maila altua... Herritar guztiatzat sarrera libre da, ez soilik ikasleentzat. Udal Euskaltegian, 9:00etan eta 19:00etan. EUSKARAZ.

Osteguna, 18

Berto-soaio

SORPRESAZ BETERIKO BERTSO-

SAIOA egingo da. Bertan parte hartuko duten bertsolariak, honakoak: Unai Muñoa, Ane Labaka, Jon Martin eta Xabier Silveira izango dira.

Gai jartzan Jon Altuna arituko da eta saioa girotzen Aitor Atxega. Jalgi kafe-antzo- kian, 20:30etik aurrera. EUSKARAZ.

Oharrak

Marrazki eta pintura eskolak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrazki eta pintura klaseak hasi dituztela dagoeneko eta oraindik izena emateko aukera dagoela. Klaseak Kultur Etxean dira asteazken eta ostia- raletan 18:30etik 20:30era eta larunbatetan 09:30etik 11:30era.

Udaltzainek jasotako gauzak

Udaltzainen bulegoak herriko bizilagunei jakinarazten die ondoko gauza hauek dauzkata jasota, argazki kamara, urrezko eskumuturrekoa, zilarrezko eskumuturrekoa, Seiko markako bi eskumuturreko erloju, Vieceroy markako eskumuturreko erloju, Massimo Dutti markako eskumuturreko erloju, diru-zorroa, urrezko katea, zilarrezko zintzilarioa, Symbol markako makina, Nokia markako mugikorra, Festina markako eskumuturreko erloju, Suzuki markako motozikleta kas- koa eta zilarrezko belarritikoa.

Hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horrela izan ezean, legeak ezarritako norakoa emango diete.

Horietakoren bat ikuska- tzeko interesaturik dauden pertsona guztiei arren eska- tzen zaie Udaltzainen Bulego- ra hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Eskerrak eman solidarioei

Lasarte-Oriako parrokieta- ko Misio taldeek Haitiren aldeko afari solidarioa antolatu zuten urtarrilaren 23an. Bertan 4.300 euro jaso ziren, Mese- deetako Amen ordenaren bitartez Haitira bideratuko direnak. Antolatzaileek eske- rrak eman nahi dizkiete afa- rian parte hartu zutenei eta nahiz eta ez joan afarira, dirua eman zutenei. Haitik gure beharra duelako, mila esker.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info
txintxarri@ttakun.com

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkariara. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Eskutitzak

Sortu eta eragin!

Kaguenka! bukatu genuen 2009. urtea Topagunekook, euskalgintzako beste hainbat eragilek bezala: hase- rre, irainduta, nazkatuta... Hau da, toxinaz beteta.

Nahikotxo hitz egin da euskarazko hedabideek merezi ez duten tratua, ez euskaraz zein erdarazko Euskal Herri osoko hedabi- deetan. Hau da gertatu denaren gainean egin dezakegun irakurketa posi- tibo bakarra: alde batetik, hainbat enteratu dira existi- tzen garela eta egituratu samar gaudela, eta bestetik Euskarabidearen sorrere- kin Nafarroako Gobernuak egin zuen distrakzio maniobra berez erori egin dela, agerian geratuz, Nafar Gobernuak daraman hizkuntza politika euskara- fobiko, mendeatzaile eta aldeanoa ezkutatzeko, Eus- karabidea erabiltzea dela euren asmo bakarra, horre- tarako Euskarabideako zuzendaria ipurdia agerian utzi behar badu ere.

Bestelakoa izan zite- keen Institutua baliabidez hornitu izan balute, baina ez.

Gero elkarbizitzaz hitz egingen digute. Nork eta gizartearen gutxiengo handi baten nahiak, esku- bideak eta kultura errespe- tatzan ez dituenak.

Gaurkoan ordea ez dut gehiago hedabideen gaiaz hitz egingen, mingarria den arren ez baita kaltetua atera den sektore bakarra, ez horixe. Azken bi urteko aurrekontuek, euskararen erabilera sustatzeko eki- men guztiak kaltetzea dute helburu: hedabideak, haur eta gazteen aisialdia, kultur programazioa, entitateak euskalduntzeko programak, mintzapraktika egitasmoak, herritarren sentsibilizazio- rako ekimenak, euskalte- giak, irakaskuntza... Hau da, eraso erabatekoa da, helburu garbia duena: eus- karaz bizi nahi dugunon- tzako esparruak irabazteko egindako lanak ahalik eta gehien tratatzea, horretan aritzen diren eragileei diru- laguntzak erabat murriztu- z.

Nafarroako euskaltza- leok, gure Gobernuaren babes juridiko, politiko eta ekonomikorik gabe aurrera egin behar dugu. Gainera, kontziente gara, Gober- nuak hiru plano horietan orain ukatzen duen babesa ezinbestekoa dela, gizar-

tearen inplikazioarekin batera euskararen erabate- ko normalizazioa lortuko bada.

Egoera larria dela jakin badakigu. Horren aurrean zer? galdetu dute hainbatek.

Gure ustez, zailtasunaz zailtasun bi planotan lan egin behar dugu: alde bate- tik sormenetik tiraka inu- rrien antza auzoz -auzo, herriz - herri antolatu, hiz- tun sareak osatu, erabilera- rako esparruak irabazi, diru iturri berriak bilatu.... Eta, beste aldetik Nafarroako euskaltzaleon nahia ozena- go entzun dadin ekimen bateratu eta jarraituak anto- latu; horretarako Nafarroan gero eta euskaltzale gehia- go egon gaitzen diskurtso eta ekimen erakargarriak gizarteratu, politikariekin harremanak ugaritu, botere ekonomikoarengan ahal dela eragin, kale agerpen indartsuak egin e.a.

Lehendabiziko egiteko- ari, hots, auzoz auzo sare- tze lan horretan, inozokerietan erori gabe, zerbait aurreratua dugula esan dezakegu, ez baita alferrik urteetan euskalgin- tzakook langintza horretan sortutakoa : ikastolak, eus- kaltegiak, hedabideak, aisialdi eta kultur progr- amak, mintzakide, komer- tzio eta profesionalen gidak...

Bigarren egitekoari dagokionean, Topagunea etxeko lanak egiten ari da; izan ere, azken urte haue- tan, euskararen erabileran eragitea helburuarekin sortu diren euskara elkarte eta ia hedabide guztiak federatu baitira Topagu- nean. Horren ondorioz, esan dezakegu euskalgin- tzaren hanka bat Topagu- nearen inguruan egituratu dela eta horrek lagungarri izan behar lukeela Nafarro- ako euskalgintza egitura- tzen eta batzen.

Beraz, Topagunea prest dago, euskalgintza eta Nafarroako gizarte euskal- tzaleekin diskurtso eta dinamikak adostu eta elkar- lanean aritzeko.

“El Drogas” -ek esana: Pentsatzeari uzteko garaia iri- tsiko zaigu hiltzen garenean, bitartean...

Oskar Zapata Solano
Nafarroako Topagunea

Eztipphoto

Argazki Estudioa

Ezkontzak

Book

Jaunartzeak

Estudioko erretratuak

Album Digitalak

Bideoa

Diseinu Grafikoa

INFO:

www.eztipphoto.com

Berria!



Golf Enparantza 4 behea, Atsobakar (Garaikoetxea parean) LASARTE. Tel.: 635 005 341- 636 770 058